

eskolabidea

Tokiko-proiektuak egiteko gida



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

OSASUN SAILA

DEPARTAMENTO DE SALUD

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren *Bibliotekak* sarearen katalogoan aurki daiteke:

<http://www.bibliotekak.euskadi.net/WebOpac>



Argitaraldia: I.a, 2016ko maiatza

Birrinprimaketa: I.a, 2017ko urtarrila

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Osasun Saila

Egileak: Osasun Sustapena, Osasun Saila:
Beatriz Nuin, Aitziber Benito eta Yon Sorarrain.

Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, I
01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua: EkipoPO



eskolabidea

Eskola-bideak sustatzeko proiektuak ikasleei zuzendutako ekimenak dira, kaleetan segurtasunez eta autonomiaz mugitzea izan dezaten, eta espazio publikoaren erabilpena eta gozamena berreskuratu dezaten, betiere osasuna eta autonomia hobetzeko helburuz.

Orobat, eskola-ingurunean mugikortasun aktiboa bultzatzea tresna eraginkorra bilakatu daiteke, ikasleok gero eta kontzientziatuago egon daitezen, txikitatik, osasuntsu egoteko jarduera fisikoak duen garrantziaz.

Gida honen bidez, eskola-bideen proiektuak garatzen lagundu nahi zaie ikastetxeei.

Biztanleriaren zenbait sektore koordinatzea toki-mailan (irakasleak, ikasleak, elkarteak, familiak, merkataria, udala, eta abar), sektoreen arteko lana eginez, lagungarria izango da proiektua gauzatzeko eta helburu komuna lortzeko, alegia: herritar guztiak oinez ibil daitezen bultzatzeko.



ESPERO DIREN EMAITZAK

Ikasleen artean:

- Bizimodu aktiboago izango dute, ez hain sedentarioa eta ona izango da haien osasunerako.
- Haien autonomia areagotu egingo da eta seguruago sentituko dira kalean, kalea ezagutzen eta zaintzen ikasiko baitute.
- Mugikortasun jasangarrirako ereduak eskuratuko dituzte.
- Heldu-erreferentzia gehiago izango dituzte, eta gizarte-sarea indartuko dute.

Familietan:

- Gizarte-sare baten partaide direla sentituko dute, zeinak haurren ongizatea zaintzea duen helburu; konfiantza- eta segurtasun-sentipena izango dute, eta lana eta familia bateratzeko aukera hobea.

Ikastetxeetan:

- Toki-administrazioarekin komunikazio-loturak sortuko dituzte, zeinak etorkizunean ere elkarrekin lan egitea erraztuko duen.
- Eskola-curriculumaren barruan, gai honen bidez, besteak beste, osasunari, mugikortasunari eta jasangarritasunari buruzko edukiak bideratuko dituzte.



GARAPEN-FASEAK

I. FASEA.- AURRETIKO JARDUERAK

Proiektua definitzea:

- Proiektuan zein taldek hartuko duen parte. Batzorde tekniko bat sortzea.
- Sektorearteko planteamendu bat egitea gomendatzen da, tokiko sektore desberdinek parte hartuta. Lana ikastetxearekin eta udalarekin koordinatuta egiteak lagunduko du helburu hori lortzen. Horretaz gain, auzoko beste sektore batzuen, merkatarien, elkarten eta familien laguntza lortzen ahalegindu behar da.
- Ikasleak dira ekimen honen protagonista nagusi; parte aktibo direla sentitu, inplikatu eta proiektua bere egin behar dute.

Proiektuaren baldintzak:

- Ikastetxe parte-hartzailea.
- Zer ikasturteri edo adini zuzentzen zaion.
- Programa bakarrik oinezkoentzako den, edo txirrindularientzat, edo bientzat.
- Jarduera-eremua (ikasleen etxebizitzetatik ikastetxera dagoen distantzia). Gehienez ere, 3 km egotea gomendatzen da.
- Bestelakoak.

Ezar daitezkeen helburuak:

- Egunero, ikastetxera oinez edo bizikletaz joaten den ikasle kopurua areagotzea.
- Haurrengan hautemandako autonomia eta segurtasuna areagotzea: ikastetxera heldurik gabe joaten diren adingabekoen adina murriztea.
- Egunero, ikastetxera ikasleak eta irakasleak ekartzeko erabiltzen den ibilgailu-kopurua gutxitzea.
- Sedentarismoarekin, jarduera fisikoarekin eta mugikortasun jasangarriarekin erlazionatutako hezkuntza-jarduerak egitea ikasgeletan, eta praktikak kalean.
- Gurasoak proiektuan inplikatzeko, haurren autonomia-maila areagotzea lor dadin.
- Inguru-kaleak berreskuratzea, oinezkoen joan-etorriak seguruak izango direla bermatzeko.
- Etab.



2. FASEA.- DIAGNOSTIKOA

Mugikortasuna eta joan-etorriak egiteko ohiturak aztertzea, eta informazioa biltzea.

Ikastetxearen ingurunea eta ibilbide nagusiak aztertzea segurtasunaren eta erosotasunaren ikuspegitik, haurren mugikortasunerako. Zeregin horretan ikasleak, familiak eta, ahal bada, auzoan interesa duten taldeak inplikatzeko.

Ikasleei inkestak egitea ikastetxera egiten dituzten joan-etorriei buruz (nola joaten diren, nola gustatuko litzaiekeen...). Familiei eta irakasleei ere egin dakieke inkesta. Tresna didaktiko gisa ere erabil daiteke inkesta hori (informatika edo matematika ikasgaietan), eta proiektua ezaugarrazteko eta hausnarketa abiarazteko metodo bat ere izan daiteke. Alderdi hauek eztabaidatu daitezke:

- Jatorri-lekua, distantziak eta denborak.
- Zer bide egiten den.
- Zer garraiobide erabiltzen den.
- Bakarrik joaten diren edo norbaitek laguntzen dien.
- Gaur egungo bideari buruz zer iritzi duten eta nola joatea gustatuko litzaiekeen.
- Oinez ibiltzeko edo bizikletaz ibiltzeko zer zailtasun dituztela nabaritu duten.
- Oinez ibiltzeko edo bizikletaz ibiltzeko zer abantaila dituztela nabaritu duten.

Bide ohikoenen mapa egitea. Ikasle zaharrenek egin dezakete, ikasgelako lan gisa (lehen hezkuntzako azken ikasturtetakoek).

Joan-etorri aktiboetan izan daitezkeen arazoak identifikatzea eta haien kausak. Ikasle zaharrenek egin dezakete, ikasgelako lan gisa (lehen hezkuntzako azken ikasturtetakoek).



3. FASEA.- PLANA EGITEA ETA JARDUKETAK PROPOSATZEA

Hezkuntzaren eremuko jarduketak:

- Prestakuntza-programetan zeharkako edukiak sartzea, hala nola jokaera osasungarriak, jasangarriak eta seguruak.
- Erabakiak hartu behar direnean eta proiektua dinamizatu behar direnean neska-mutilek ere parte har dezaten saiatzea, haien inplikazioa bermatzeko.

Ikasleek parte hartzea:

- Proiektua garatzen.
- Eremu publikoa aztertzen eta hari buruzko proposamenak egiten.
- Mugikortasun-jarraibideak aztertzen.
- Neska-mutilek eskolarako bidea oinez edo bizikletaz egin dezaten motibatuko dituzten pizgarriak sortzen. Adibideak:

Banakako pizgarria: oinezkoaren/txirrindulariaren agiria; ikasgelara iristen direnean zigilatuko zaie, eta zigilu-kopuru jakin bat izatera iristen direnean nolabaiteko onarpena izango dute.

Taldeko pizgarria: poster erraldoi bat jartzea ikasgelako sarreran; posterrak itxura jakin bat izango du (esate baterako, zuhaitz bat); horren gainean objektuak jarriko dira (esate baterako, orriak) ikasgelako norbait oinez edo bizikletaz iristen den bakoitzean. Ikasgela aktiboenari onarpena egingo zaio.

Eremu publikoan egingo diren jarduketak:

- Proiektuarekin erlazionatutako seinaleak jartzea (irteeragunean, ibilbidean zehar eta jendea “jasotzeko” “geltokietan”).
- Bide-zoruan markak, kartelak, oinatzak eta abar margotzea.
- Udalaren laguntzarekin: zirkulazioa erregulatzeko eta arintzeko neurriak, bidegurutzeen segurtasuna areagotzekoak eta abar.

Eskola-bidea inauguratzea. Entsegu orokorra egiteko eguna:

Lehenengo etapan, helduak izan daitezke laguntzaile, hauek erakusteko:

- Bidea.
- Geltokiak.
- Geltoki bakoitzean izango diren neska-mutilak.
- Arazoren bat sortzen bada laguntzeko prest dauden tokiko dendak; behar bezala seinaleztatuta egongo dira.
- Jarduketen egutegia.



4. FASEA.- JARRAIPENA ETA BALIOESPENA

Proiektuaren hiru balioespen egin daitezke:

- Emaizten balioespena:

Lehen, ikastetxera, ibilgailu motordunetan etortzen ziren neska-mutilen kopurua eta, orain, oinez edo bizikletaz etortzen direnena konparatuko dira.

- Prozesuaren balioespena:

Aurreikusitako jarduketak egin diren, parte hartu duten pertsonek zer inplikazio izan duten eta haien asebetetze-maila balioetsiko dira.

- Eraginaren balioespena:

Ekimena abian jarrita bertan inplikaturako pertsonen ideiak, jarrerak, eta portaerak aldatu diren egiaztatzea (ikasleenak, familienak, irakasleenak eta abar...).



Bibliografía

Camino escolar. Ministerio de Fomento. <http://goo.gl/O8P6WV>

Camino escolar, Paso a Paso. Dirección General de Trafico. Ministerio del Interior. <http://goo.gl/va7Tcr>

Caminos escolares. Ayuntamiento de Zaragoza. <http://goo.gl/qc7pXv>



